



AURKIBIDEA | ÍNDICE

**ETORKIZUNeko
BEASAIN ERAIKITZEN**

- 2 ↪ Herritarrak, herriaren garapena eta etorkizuna lehenetsiz
- ↪ 2015-2019 Legealdi Planean jasotako proiektuen %53 eginda edota martxan

BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 ↪ Bertako produktuen maizteko azoka
- ↪ Bertsolaritza eta ahozketasuna
- ↪ Bertsomovieda sari banaketa
- ↪ BKLren 50. urteurreneko hitzaldia
- ↪ Dantzari txiki eguna
- ↪ Kantaldia
- ↪ Txiki Musik
- ↪ Udaberri literario artistikoa kalean
- + ↪ Erauskin plaza inguruari buruzko hausnarketa prozesua
- ↪ La Salle-proiektu teknologikoen azoka
- ↪ Aranealde ibilaldia
- ↪ Barandiaran parkea

**BEASAINDARRAK
PROTAGONISTA**

- 6 ↪ Haurren euskara gaitasuna areagotzea helburu duen hizkuntza errefortzu zerbitzua

**BEASAIN DARRENTZAKO
INFORMAZIOA**

**Lehen bi urteetan
Legealdi Planean
jasotako
proiektuen %53
gauzatu da**

**Realizados el 53% de los
proyectos recogidos en el
Plan de Legislatura**

GUTUNA

Aitor Aldasoro

Beasaingo alkatea

**HERRITARRAK, HERRIAREN GARAPENA ETA ETORKIZUNA LEHENETSIZ**

Orain dela 2 urte hartu genuen herri eta udaletxe honen gidaritza, eta zitzu bizian iritsi gara legealdiaren erdigunera. Pozik gaude lehen bi urte hauetan Legealdi Planean jasotako hainbat eta hainbat proiektu gauzatzea edota martxan jartzea lortu dugulako.

Pertsonak eta beren ongizatea izan dira gure lanaren ipar-orratz, hori dela eta enplegu sustapenari garrantzia berezia eman diogu, baita, jakina, pertsonen ongizateari eta gure nortasuna eta kultura sustatzeari ere.

Hasiera-hasieratik landu ditugu etorkizunerako oinarriak, argi dugulako zein herri eredu eraiki nahi dugun eta zer nolako Beasain herria eskaini nahi diegun herritarrei: enplegua duena, aukera berriak eskaintzen dituen, bere nortasunaren eta kulturaren sustatzailea dena, balioetan oinarritua dagoena eta heritarren beharrei erantzungo diena.

Hori lortzearen egin dugu lan buru-belarri eta bide berari eutsiko diogu datozen bi urteotan ere, gure herriaren etorkizuna eta garapena bermatzeko.

Zuek, herritarrok, zarete gure eguneroko lanaren jomuga, txikian zein handian eta zuen babesarekin jarraitu nahi dugu guztiona den herri hau, proiektu hau, aurrera ateratzen. Eskerrik asko.

Dos años muy fructíferos trabajando al servicio de las personas

Cumplidos los dos primeros años de legislatura toca hacer una lectura de lo realizado y lo que aún queda por realizar. Son muchos los proyectos que hemos logrado llevar a cabo o poner en marcha.

Nuestro principal objetivo ha sido y seguirá siendo responder a las necesidades y peticiones de la población y trabajar al servicio de las personas. Por ello, la promoción económica y el empleo, el bienestar de las personas y las políticas sociales, el impulso a la cultural y a la identidad local, así como hacer de Beasain un municipio amable, accesible, adecuado a las personas, han sido nuestras prioridades.

Esa ha sido y seguirá siendo nuestra hoja de ruta, con nuevos proyectos, que redunden en beneficio de la ciudadanía y garanticen el bienestar de las personas y el desarrollo y futuro de nuestro municipio.

**2015-2019 LEGEALDI
PLANEAN JASOTAKO
PROIEKTUEN %53
EGINDA EDOTA
MARTXAN**

Ehun proiektutik gora daude 2015-2019 Legealdirako Kudeaketa Planean jasoak, ardatz eta helburu ezberdinen baitan kokatuta. Udal gobernua lehen bi urte hauetan horietako hainbat eta hainbat gauzatu edota martxan jarri ditu, %53 hain zuzen ere.

Besteak beste, kirol instalakuntzetan hobekuntzak egin dira, Beasain Kirol sariak sortu dira, Loinatz Futbol zelaian belar artifiziala ezartzeko proiektua egin da, Beasain Lagunkoia proiektua abiatu da, dantzan.com elkartearekin hitzarmena sinatu da, kirol kontsultategia martxan jarri da, hainbat lan egin dira herriko kale, lorategi eta haur jolastokiak hobetzeko, auzoetan ere hobekuntzak egin dira, TAO zerbitzua hobetu eta aparkaleku kopurua handitu da eta 5. edukiontzia ere ezarri da gaikako hondakin bilketa egiteko.

Más de la mitad de los proyectos recogidos en el Plan de Legislatura están realizados o en marcha, muchos de los cuales han sido posibles gracias a la colaboración y trabajo coordinado con las demás instituciones o asociaciones como por ejemplo: las 15 nuevas plazas concertadas en Arangoiti, las mejoras que se realizarán en la N-1 a su paso por Beasain para evitar accidentes y mejorar la seguridad vial, los ascensores de Oria pasealekua y Zazpitueta, el proyecto Goiz Alzheimer, los proyectos para fomentar el empleo o las obras para mejorar la fachada del Liceo que se llevarán a cabo en verano y tendrán un coste total de 700.000 euros que sufragará en su totalidad el Gobierno Vasco.

ANTOLAKUNTZA ORGANIZACIÓN

Udala garai berrietara egokitzeko eta informazioa herritarrei gerturatzeko helburuz aurrera eramandako egitasmoak

%50



UDAL EGITURA BERRIA



WEBGUNEA



UDAL ALDIZKARIA

HERRITARRAK CIUDADANÍA

Enplegua eta pertsonen ongizatea bermatzeko eta aukera berriak eskaintzeko aurrera eramandako proiektuak

%58



AZOKA



HIZKUNTZA ERREFORTZUA



IGARTZA MUSIKA ZIKLOA




GOIZ ALZHEIMER



ENPLEGUA



DANTZAN.COM



HOBKUNTZAK KIROL INSTALAZIOETAN



TAO APP BERRIA



BARATZE SOZIALAK



KALISTENIA EREMUA

LURRALDEA TERRITORIO

Herri erosoagoa, atseginagoa, jasangarriagoa eta herritarrei egokitutakoa eraikitzeko aurrera eramandako ekimenak

%52



TXAKURRENTZAKO PARKEA



IGOGAILUAK



AUZOAK



LORATEGIAK



LOINATZ



ERAUSKIN PLAZA INGURUA



5. EDUKIONTZIA



ADIERAZPEN PANELAK

MAIATZEAN BEASAINEN



Bertsolaritza eta ahozkotasuna



Bertsomovieda sari banaketa



Argazkia: HITZA



BKLren 50. urteurreneko hitzaldia



Barandiaran parkean ariketa fisikorako tresna berriak



Dantzari txiki eguna





Kantaldia



Txiki Musik



La Salle-proiektu teknologikoen azoka



Erauskin plaza inguruari buruzko hausnarketa



Aranealde eta bailarako erretiratuen ibilaldia

HAURREN EUSKARA GAITASUNA AREAGOTZEA HELBURU DUEN HIZKUNTZA ERREFORTZU ZERBITZUA



Hizkuntza errefortzu zerbitzuak harrera ezin hobea izan du. Batez-beste hilean zerbitzuak 180 hartzailea ditu beraz, kopuruak bistako egiten ditu zerbitzuaren arrakasta eta hizkuntzari lotutako beharrak.

Euskararen erabileraren aldeko apustuan, duela hilabete batzuk jarri zen martxan zerbitzua hizkuntzarekin zailtasunak zituzten haurrei eskolaz kanpo euskaraz hitz egiteko eta euskara ikasteko aukera berriak eskaintzeko helburuarekin.

Lehen hilabeteetan agerian geratu dira hizkuntza beharrak eta jasotako emaitzak ezin hobeak izan dira. Hori dela eta, zerbitzuak jarraipena izango du datozen urteetan. Zerbitzua indartze aldera, hartzaile kopuruak ez du mugarik izango haurren hizkuntza beharrei erantzuten jarraitzeko. Gauzak horrela, beharren arabera baliabideak bideratuko ditu Udalak zerbitzura, euskararekin zailtasunak dituzten eta euskaraz hitz egiteko aukera gutxi duten haur guztiei zerbitzua eskaini ahal izateko.

"El servicio de refuerzo lingüístico puesto en marcha por el Ayuntamiento ha tenido una muy buena acogida y cuenta con una asistencia media de 180 personas. Los datos avalan el éxito del servicio y en vista de las necesidades lingüísticas detectadas el Ayuntamiento reforzará este servicio de cara al próximo año".



Itakun enpresa- Iñaki Aristondo, programaren arduraduna.

"Oso pozik gaude zerbitzuak izan duen harreragatik. Ez zen erraza lehen hilabeteetan emaitza hain onak lortzea. Euskaraz txintik hitz egiten ez zuten haurrak hasi dira hitz asko euskaraz egiten eta eskoletatik ere adierazi digute haurrengan hobekuntza nabaria somatu dutela.

Ziur gaude, zerbitzuak aurrera egiten duen heinean emaitzek ere hobera egingo dutela. Hasieran gurasoei zerbitzuaren dinamika ulertzea kostatu egin zitzaion. Askok ludotekarekin nahasten zuten, batzuk etxeko lanekin lotzen zuten, beste batzuk aisiarekin bakarrik, baina lehen hilabeteetan jada guraso guztiek barneratu eta ulertu zuten zerbitzuaren funtzionamendua zein zen. Azken momentu arte izena ematen aritu dira, oso harrera ona izan du beraz guraso eta parte hartzaileen aldetik, eta gu oso pozik gaude"

Haurren gurasoak Madres y padres

"Noto que está mejorando mucho su euskera y además, se lo pasa muy bien. Lo que sí aprecio es que fuera de la ludoteca, cuando está jugando con sus amigos normalmente habla en castellano pero nada más entrar a la ludoteca cambia de registro y habla totalmente en euskera"

"Siempre va muy a gusto a la ludoteca y quiere seguir con el curso el año que viene. Respecto al euskera, es verdad que cuando sale de la ludoteca muchas veces habla en castellano con las y los amigos que acostumbra hablar en castellano. Pero dentro de la ludoteca siempre habla euskera y está teniendo una experiencia muy positiva"

"Nosotros en casa no hablamos euskera porque mi marido no sabe. Yo soy euskaldunberri y noto un cambio notable en mi hija; ahora me responde cada vez más en euskera. Además siempre va muy a gusto a la ludoteca, tienen un ambiente inmejorable entre amigos y con la profesora"

HIZKUNTZA ERREFORTZU ZERBITZUAREN LEHEN BALORAZIOA ZERBITZU EMAILE, ERABILTZAILE ETA IKASTETXEEN ESKUTIK

VALORACIÓN DEL SERVICIO DE REFUERZO LINGÜÍSTICO POR PARTE DE LA EMPRESA ENCARGADA DEL SERVICIO, PERSONAS USUARIAS Y CENTROS EDUCATIVOS

Hilero jarraipen bilerak egin dira eta oro har partaide guztien, hau da, zerbitzua eskaintzen ari den enpresaren, udal ordezkarien zein ikastetxe ezberdinetako zuzendarien balorazioa oso ona izan da. Beren iritzia gertutik ezagutu nahi izan ditugu eta lehen hilabete hauen balorazioa egiteko eskatu diegu.

Se han realizado reuniones de seguimiento y en general la valoración de todas las partes, es decir, la empresa que presta el servicio, la representación municipal y los centros educativos, ha sido muy positiva. Hemos querido conocer de primera mano su opinión y les hemos pedido que hagan una valoración de estos primeros meses.

Murumendi Ikastetxea



“Guk balorazio oso ona egiten dugu. Horrelako zerbitzuak oso lagungarriak dira, izan ere, hezkuntza sistematik haratago, haurren euskalduntzearen alde lan egiten duten bestelako eragile eta zerbitzuak izatea oso positiboa da guretzat. Antolaketa atzeratu zen arren, lehen urte honek ikasteko eta zer hobetu ikusteko balio izan digu. Haurrak ikastetxeetatik zerbitzura bideratzea ere aukera ona iruditu zaigu, gurasoekin etengabeko harremanetan gaudelako eta haiekin zuzenean hitz egiteko aukera izan dugulako. Bestalde, jarraipen bilerak ere egin ditugu programaren arduradunarekin eta hori oso positiboa dela iruditzen zaigu. Ikasleengan ere nabaritu dugu hobekuntza. Etorkizunera begira esparru gehiagotara zabaldu beharko litzateke, kirolera, adibidez, guztiok euskararen alde buru belari jartzeko, herri bezala euskararen alde egin dezagun.”

“Nuestra valoración es muy positiva. Aunque se ha demorado un poco, este pimer año nos ha servido para aprender y mejorar. Las reuniones de seguimiento nos han parecido muy positivas, así como el derivar al alumnado desde los centros, ya que estamos en contacto directo con padres y madres.”

Alkartasuna Lizeoa



“Gure ikastetxetik ikasle talde zabal batek hartu du parte. Eskolaz kanpoko ekintza izanik, ez da erraza izan zein ikasle bideratu erabakitzea, egun eta ordutegi egokiena hautatzea, eta ikasleei eta familiei zerbitzuaren helburuak azaltzea. Baina, abian jarri da, eta jarraipen batekin parte hartu duten ikasleen gainean ondorio batzuk ateratu ahal izan ditugu zerbitzua eskaini duten hezitzaileekin. Guretzat goiz da emaitzak baloratzeko, baina ikasleek erakutsi digute horrelako espazio komunikatiboek euren soziazibilizazioan eta, ondorioz, gaitasun komunikatiboan izan dezaketen eragin ona. Gainera, laguntza eman diezaioketen pertsonak gertu izatea baloratu dute. Hori euskaraz eta giro euskaldunean gertatzea bideratu behar dugu denon artean, euskararen erabilera zabaltzea herri osoaren erantzukizuna baita. Bide horretan ikusten dugu euskarazko hizkuntza errefortzua.”

“Ha participado un extenso grupo del centro, y aunque no ha sido facil organizar los horarios y explicar el programa a las familias, y nos parece pronto para hacer una valoración, creemos que ayuda a la socialización del alumnado y han valorado positivamente el tener cerca personas que les puedan ayudar”

La Salle



“Gure aldetik, oso balorazio positiboa egiten dugu. DBHko ikasleak oso gustura aritu dira eta oso motibatuta ikusi ditugu. Hileroko jarraipen bilerak ere garrantzitsuak izan dira guretzat. DBHko ikasleentzat oso zerbitzu erosoa izan da irakasle ikastetxera etortzen zelako eta beraz, datorren urtean ere zerbitzuak jarraipena izatea gustatuko litzaiuke. Haurrei zuzendutako zerbitzuari dagokionean, hasieran martxan jarzea gehiago kostatu zen, gurasoekin ere lanketa berezia egin behar izan zen, baina dena oso ondo joan da, guraso eta haurrak oso gustura daude eta zerbitzu hau ere mantentzea gustatuko litzaiuke, ikasleentzat oso baliagarri eta beharrezko delako zerbitzu hau beren euskara gaitasunak hobetzeko eta euskaraz hitz egiteko aukera izateko, etxean ez baitute eta horretarako aukerarik. Beraz, guretzat oso esperientzia positiboa izan da”

“La valoración es muy positiva y nos gustaría que se mantuviera el servicio. Para el alumnado de la ESO ha sido muy cómodo disponer de él en el centro. Para niñas y niños costó más, pero también nos parece positivo por la mejora de su euskera y porque tienen oportunidad de hablarlo más ”



BERTAKO PRODUKTUEN AZOKA

MERCADO PRODUCTOS DE TEMPORADA

EKAINAK 10 | 10 de JUNIO

10:00 - 14:00 Loinazko San Martin plaza azpian

11:30

Gazta egiten ikasteko tailerra

Taller de confección de quesos

12:00

Gazta dastaketa Cata de quesos

12:00

Loinatz Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleak kaleetan eta azokan

Trikitilaris y panderojoles de Loinatz Musika Eskola por las calles y el mercado

13:30

Azokako produktuez osatutako 2 saskiren zozketa, bertan erosketak egindakoen artean

Sorteo de 2 cestas de productos del mercado entre las personas que hayan comprado en el mismo



EUSKARA IKASTAROAK
CURSOS DE EUSKERA

Noiz? Fechas

2017.06.26 - 2017.07.21

Izena ematea Inscripción

2017.06.07 - 2017.06.20

***Langabetuentzako doako ikastaroak**

Cursos gratuitos para personas desempleadas

Informazio gehiago Para más información

943 02 81 00 | euskaltegia@beasain.eus

BARATZE SOZIALETARAKO IZEN-EMATEA
INSCRIPCIÓN PARA LAS HUERTAS SOCIALES

Noiz? Fechas

2017.06.30 arte hasta el 30.06.2017

Izena ematea Inscripción

Elektronikoki: rosa@laiacoop.net por e-mail

Presentzialki: iGunean Presencialmente en el iGunea

Informazio gehiago Para más información

943 02 80 50 | udala@beasain.eus

DATUEKIN JOLASEAN

2017ko LOINATZ JAIAKAKO EKINTZEN AURREKONTUA

Elkarteeen hitzarmenak Convenios	30.740,55
Mariren jaitsiera Bajada Mari	1.932,61
Musika Música	26.557,10
Herri animazioa Animación	20.104,00
Suak Fuegos	5.489,62
Kartel lehiaketa Concurso de carteles	780,00
Komunikazioa Comunicación	1.866,82
Erraldoiak, parkeak Gigantes, parques	8.570,00
Danborrada Tamborrada	9.219,89
Loinazko San Martingo erromeria Romería	3.174,30
Ostalaritza zerbitzuak Servicios de hostelería	3.571,78
Sukaldaritza lehiaketa Concurso cocina	2.702,77
Txosnak Txosnas	7.712,86
Bideluzeko komunak Baños Bideluze	3.656,30
Bideluzeko karpa Carpa Bideluze	3.872,00
GUZTIRA TOTAL	129.950,60

JAKINARAZPENAK

NOTIFICACIONES

EGUTEGI FISKALA CALENDARIO FISCAL

ZERGA ETA TASAK IMPUESTOS Y TASAS	Kobrantza epea Periodo de cobro
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI)	2017.05.15 - 2017.06.30

* Helbideratutako ordainagiria borondatezko epearen azken egunean kobratuko dira El cobro de los recibos domiciliados se realizará el último día del periodo voluntario.

SERVICIO PÚBLICO DE TELEASISTENCIA



Los Servicios Sociales del Ayuntamiento en colaboración con el Gobierno Vasco ofrecen este servicio público que permite a las personas seguir viviendo de forma independiente con seguridad y tranquilidad.

* No hay coste por instalación y el coste de mantenimiento no supera los 4€ al mes. Para más información: 012/ Servicio Sociales del Ayuntamiento

LOTURAK ENLACES



• **kzGunea** Ekaineko ikastaroa | Cursos de junio
www.kzgunea.eus




• **Musika Eskola**
www.beasaingomusikaeskola.eus



• **Antzizar kiroldegia**
www.antzizar.net



• **Udal Euskaltegia**
www.udaleuskaltegiak.eus



2017-2018 IKASTURTERAKO HIZKUNTZA ERREFORTZU ZERBITZUAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

ABIERTO EL PLAZO DE INSCRIPCIÓN PARA EL CURSO 2017-2018 DEL SERVICIO DE REFUERZO LINGÜÍSTICO



Beasaingo Udala

Lege gordailua SS 403-2016